



## Emakumeak, sagardogile

Historiako alor askotan emakumearen figura eta haiek egin dutena denboran zehar ezkutatuta gelditu da. Sagardogintza-ren alorra ez da gutxiago: izan da historian emakume ekin-tzailerik ere jarduera honetan.

XVI-XVIII. mendeen artean emakumeak lan asko egin behar izan zuen familiaren beharrei aurre egiteko. Gipuzkoan, gainera, ohikoa zen sagastietan lanean nahiz sagardoaren salerosketan ziharduten emakumeak aurkitzea. Astigarragako Sagardoetxeak 2018. urtean aldi-baterako erakusketa interes-garria antolatu zuen emakume sagardogileen inguruan, eta Lurgidan hori gogora ekarri nahi izan dugu, "Sagardogintza-ren ibilbidea" atalaren baitan.

Erakusketa horretan, XVI-XVIII. mendeetako Gipuzkoako lau emakumeren historiak ezagutu ziren: Maria Labayen, Ma-ria de Echevarria, Ana de Beroiz eta Fagola eta Maria Josefa de Orobio. Ausartak, ekintzaileak, azkarrak eta negozioen mun-dua ondo ezagutzen zuten emakumeak izan ziren, eta bakoit-zaren bizimodua nahiz gaintitu beharreko arazoak ezberdi-nak izan arren, sagardogintzak lotzen zituen emakume hauek.

Zelaia sagardotegiak eta Lourdes Odriozola ikerlariak egindako ikerketa lana duen "Maria de Labayen, XVI. mende-ko emakume sagardogile ausarta" erakusketa osatzen duten azalpen panelak erabili ziren erakusketa horretan. Bestetik, "Euskal Herriko Ahotsak" proiektuan bildutako eta sagardoa-ren munduarekin harremana izan duten adineko 22 emaku-meren testigantzak proiektatu ziren bertan. Gustura ikusiko genuke berriz ere erakusketa hori!

